

INFORMAZIO-SAIOA: MANUEL DE FALLA

2020.03.04

HEGOALDE IKASTOLA

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA
IRUÑEKO UDALA



TXOSTENAREN EDUKIA:

INTRODUCCIÓN: DATOS GENERALES	2
BIENVENIDA.....	2
PRESENTACIÓN A CARGO DEL ALCALDE ENRIQUE MAYA.....	2
INTERVENCIÓN DEL DIRECTOR DE PROYECTOS Y OBRAS, SOSTENIBILIDAD Y MOVILIDAD	
ALEJANDRO ASTIBIA	3
PREGUNTAS Y SUGERENCIAS.....	4
CIERRE.....	8
ANEXO: GALERÍA.....	9
ANEXO: PRESENTACIÓN ALEJANDRO ASTIBIA.....	10
ANEXO: PRESENTACIÓN CIMA Ingenieros SLU y SUMA Urban Sustainability Consultants SLP.....	10



SARRERA: DATU OROKORRAK

Data: 2020/03/04

Ordua: 18:30 – 20:15

Tokia: Hegoalde Ikastola

Udal-ordezkarriak: Honako hauek osatu dute mahaia: Enrique Maya, Iruñeko alkatea; Fermín Alonso Proiektu estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko zinegotzia, eta Alejandro Astibia, Iruñeko Udaleko Proiektu eta Obretako, Jasangarritasuneko eta Mugikortasuneko zuzendaria

Parte-hartzaileen kopurua: 51 lagun

Moderatzaileak: Sara Sara Sanzol, Iruñeko Udaleko Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Gazteriako Alorreko teknikaria.

ONGIETORRIA

Iruñeko Udaleko Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Gazteriako Alorreko zuzendari Sara Sanzolek hasiera eman dio topaketari, mahaikideak aurkeztu ditu, eta eztabaidagunearen egitura orokorra azaldu ondoren, parte hartzeko dauden askotariko bideak gogora ekarri ditu.

AURKEZPENA ENRIQUE MAYA ALKATEAREN ESKUTIK

Bertaratu diren pertsoneri eta Udalbatzako kideei eskerrak eman dizkie eta jarraian proiektuaren egileak aurkeztu ditu, horiek ere aretoan baitaude.

FERMIN ALONSO PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO, MUGIKORTASUNEKO ETA JASANGARRITASUNEKO ZINEGOTZIAREN PARTE-HARTZEA

Fermin Alonso Iruñeko Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko zinegotziak bertaratuei jakinarazi die gaur aurkeztuko den proposamena Urrobi Erreka, Irati Erreka eta Manuel de Falla kaleak Berrurbanizatzeko Proiektua gizarteratzeko ekimena dela.



Aurkeztu diren eranskinetan ikus daitekeen gisan, proiektuak 3 milioi eurotik gorako inbertsioa dakar, eta honakook ditu xede: auzoa biziberritzea eta oinezkoari espazio publikoa itzultzea.

Era horretan, urteetan adierazitako gabeziak konponduko dira, hala nola espaloi estuak, zirkulazioko gorabeherak eta aparkatzeko zailtasuna.

Ondoren xehakatuko diren hobekuntzak honako hauetan islatuko dira: plaza berriak, berdegune gehiago eta hobekuntzak hiri altzarrietan.

Horiez gain, aparkatzeko galduko diren 200 bat toki konpentsatzeko auzotarrentzako disuasio-aparkaleku bat egokituko da auzoaren hegoaldean.

ALEJANDRO ASTIBIA PROIEKTU ETA OBRETAKO, JASANGARRITASUNEKO ETA MUGIKORTASUNEKO ZUZENDARIAREN PARTE-HARTZEA

Iruñeko Udaleko Proiektu eta Obretako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko zuzendariak proiektuari buruzko informazio gehiago eman die bertaratu direnei (Ikusi ERANSKINA: ALEJANDRO ASTIBIAREN AURKEZPENA), besteak beste, honako hau:

- Helburua.
- Eragina.
- Kostua.
- Faseak.
- Jarduketaren xede diren kaleen egoera obrak egin aurretik eta ondoren.
- Jarduketa-proposamenak.
- Aparkaleku berriaren kokapena.

Alonsok hitza hartu du aurkezpenaren inguruko azalpen batzuk emateko, besteak beste, argitzeko espaloiak galtzadaren maila berean joanen direla eta horrek zirkulazioa nabarmen baretuko duela.

Haren mintzaldia amaitutakoan bertaratuei eman zaie hitza haien galderak eta iradokizunak ezagutzeko.



GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Atal honetan guztira hamahiru lagunek hartu dute hitza:

EGILEA	GALDERA / ERANTZUNA
Auzotarra	Udalak horrelako guneeetan entzunak izateko eskaintzen dien aukera eskertu du eta obren iraupenak zenbat joko duen galdetu du.
Udala	<i>Berrurbanizazio-proiektuak lanei 2020. urtean ekitea aurreikusten du, eta 3 ekitalditan banatuko lirateke. Obrak gauzatzeko epea 12 hilabetekoa izanen litzateke etenik gabe eginen balira, baina asmoa zatika egitea da, hau da, hiru urtetan zehar urtean 4 hilabetez. Aurreikuspen hori Iruñeko Udaleko udal-taldearen artean hori ahalbidetuko lukeen kontsentsua erdiestearen mende dago, betiere.</i>
Auzotarra	Uste du dimentsio handiko proiektua dela eta ez lukeela albo batera utzi behar auzoan barna dauden edukiontzietan egin beharreko esku-hartzea. Bi aldetatik ikusten du beharrezkoa esku-hartzea: batetik, Mankomunitatearen aldetik, kontrola eta garbitasuna areagotuz, eta bestetik, Milagrosako auzotarren gizabidezko jokaeraren aldetik, uste baitu pertsonok estetikoki polita dena zaintzeko joera dugula. Horiek horrela, espero du proiektuak positiboki eragitea alderdi honetan.
Udala	<i>Zentzu eraikitzailean jasotzen du gauza berriak eta politikak hobeki zaintzen ditugunaren mezua.</i>
Auzotarra	Auzotar bat ez dator bat aurreko parte-hartzaileak esandakoarekin, uste baitu pertsona batzuek auzoan bizi arren ez dutela zaintzen ez dutelako auzoa euren sentitzen. Kexa-zerrenda bat ekarri du eta mahaikideei eman die, fatxadetako kable, grafiti eta auzoko guneei batzuetako droga-trafiko xehe eta liskarrei buruz.
Udala	<i>Jarduketa honek ez ditu alboratzen segurtasun- eta gizabide-arazoak, Udaleko alor ezberdinak jabetuta daude arazo horiez.</i>



Auzotarra	Auzoan eginiko jarduketa batzuk positibotzat jotzen ditu, hala nola, auzoan zehar igogailuak jarri izana, baina begi-bistakoak diren gabezia ugari aipatu ditu.
Udala	<p><i>Udala lanean ari da behar horiek Milagrosako Plan Bereziaren bidez leuntzeko; plana oso aurreratua dago saio honetan azaltzen ari diren arazoak kontuan hartzeari dagokionez, eta Manuel de Fallakoa bezalako mugikortasuneko proiektu estrategikoekin osatuko da plana.</i></p> <p><i>Udal-talde guztiak bat gatoz auzoan arreta berezia jartzearekin, eta interesgarriak izan daitezkeen proposamenak badaude, besteak beste, Guelbenzu zinema-areto zaharrean gizarte-etxe bat sortzea, edo eraikinen etxabeetan etxebizitzak egiteko aukera ematea.</i></p> <p><i>Gune batzuetan antzematen den segurtasun-ezari dagokionez, poliziak kale horietan zaintza berezia egiteko jarraibidea eman da, auzoko bizi-kalitatea hobetzea izanik helburua.</i></p>
Auzotarra	Polizia Nazionala eta Udaltzaingoaren presentziari dagokionez, uste du azken honen presentzia ez dela hain eragozlea. Beste alde batetik, galdetzen du ea Udalak ziur dakien auzoko kamerak aktibatuta dauden ala ez.
Udala	<i>Udalaren ustez hiri guztiko kamerak ikusten dira Udaltzaingoak Iratxeko Monasterioaren kalean duen egoitzan, baina egiaztatuko du horrela den.</i>
Auzotarra	Auzotarrak, eleaniztuna eta hiru haurren aita izanik, haurrek euskaraz eta gaztelaniaz ikastea nahiko luke eta jakin nahi du zer nolako hezkuntza zerbitzuak izanen dituzten auzotarrek adin txikikoak eskolatzeko.
Udala	<p><i>0-3 urteko haurren hezkuntzan aldaketak egiteko erabakia nahitaez bete beharreko epai irmoaren ondorio da.</i></p> <p><i>Gaur egun eredu berria nolakoa izanen den ebazten ari gara, izan ere gaztelaniaz eta/edo euskaraz izaten den eskariak baldintzatuko du erabakia, ulertzen baita zerbitzuak eskariari erantzun behar diola.</i></p> <p><i>Dagoen eskariaren zenbatekoa zehazteko ikerketaren arabera egingen da hurrengo ikasturterako deialdia, ez 2020-2021 ikasturterako.</i></p>



<p>Auzotarra</p>	<p>Azalpenak eskatu ditu planak ukitzen dituen kaleetako ibilgailuen zirkulazioari eta zirkulazioaren norabideari buruz.</p> <p>Horrez gain, eskatu du kontuan hartzeko orain oinezkoendako izanen diren kaleetan zarata areagotzearen balizko eragina.</p> <p>Bestetik auzoan landatutako zuhaitz batzuek eragiten duten zikinkeria nabarmendu du eta berdeguneak urrun egoteak txakurrek kaleak zikintzea dakarrela.</p>
<p>Udala</p>	<p><i>Irudien laguntzaz (Ikusi ERANSKINA: ALEJANDRO ASTIBIAREN AURKEZPENA ERANSKINA: CIMA Ingenieros SLU eta SUMA Urban Sustainability Consultants SLPren AURKEZPENA), mugikortasuna errazteko aurreikusitako zirkulazio-jarioak aurkeztu dituzte.</i></p> <p><i>Isaac Albeniz bezalako kaleen kasuan, Talde Teknikoarekin hitz egin dute eta zaraten eta arriskuen arazoak kontuan hartu dituzte.</i></p> <p><i>Oro har, kaleak oinezkoendako bihurtzeko prozesuak positibo jotzen dira, baina baliteke neurri osagarrien beharra ere izatea, hala nola, saltoki berrien irekiera sustatu, edo aipatu den gisan, Guelbenzu zinema-aretoa zen horretan Civivox berri bat jartzea.</i></p> <p><i>Lorezaintzari dagokionez, berdegune berriak Iruñeko Udaleko lorezaintzako alorrarekin batera adostu dira.</i></p>
<p>Auzotarra</p>	<p>Jakinarazi du duela hilabete batzuk delitu bat egin zutela Urrobi Errekaren kalean, ibilgailu askori gurpilak zulatu zizkioten, eta orduan aipatu zen jarrita dauden kamerak ez zeudela operatibo.</p> <p>Horrez gain, etengabeko zaintzapean sentitzeko arriskua aipatu du kamerak asko ugaritzen badira.</p>
<p>Udala</p>	<p><i>Bi kezkek jaso ditugu.</i></p>
<p>Auzotarra</p>	<p>Auzotar batek azalpen gehiago eskatu ditu Nafarroako Gobernuak eraikinen inguratzailleetarako bideratutako inbertsioaz</p>
<p>Udala</p>	<p><i>Hor ditugu adibide modura Txantreako eta eta Lezkairuko alderik zaharreneko eraikinen fatxadetan egin diren zaharberritze-lanak; oso positiboak izan dira, eta Udalak jasagarritasun-estrategia garatu du bai irisgarritasun eta zaharberritze ikuspegitik, bai eta energia-eraginkortasunaren ikuspegitik ere.</i></p>



Auzotarra	<p>Hiru gai:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bere etxeko eraikinean fatxada+teilatua zaharberritzeko proiektua egiten ari direla dio eta jakin nahi du proiektu honek haienari eragingo dion. • Euskarari buruz dio garrantzitsua dela auzoan hizkuntza horretan ikasteko aukera izatea, auzotik atera beharrik gabe. • Azkenik, auzoko gabezia sozialei aurre egiteko dirua bideratzea nahiko luke, atzerriko nerabeekin lan egiteko arreta-zerbitzuetarako adibidez, eta ez dago ados auzoan poliziaren presentzia masiboa izatearekin.
Udala	<p><i>Poliziaren presentzia positibotzat jotzen da laguntza emateko dagoelako eta arazoak sor daitezzen saihesteko.</i></p> <p><i>Udal honek gizarte-alorraren alde egiten duen apustua agerikoa da, eta horren erakusle da Milagrosako Auzo Unitatean esku-hartzeko eginiko inbertsioa.</i></p> <p><i>Nerabeekin loturiko esku-hartzeari dagokionez, haur eta gazteen esparruan eginiko inbertsioen antolaketa egin da bikoizketak ekiditeko.</i></p>
Auzotarra	<p>Auzotar batek galdetzen du ea badagoen Araudiren bat auzoko etxabeetako fatxaden itxura estetikoa hobetzeko</p>
Udala	<p><i>Zehazpen-espeditentea abiatzea da aukera bat, edo bestela, kalitatezko diseinu estetikoak sustatzea, Kulturako Alorra hiriko beste gune batzuetan egiten ari den modu berean, izan ere, zehapen-mekanismoak gauzatzea konplexua da.</i></p>
Auzotarra	<p>Proiektu honen esku-hartzeen inguruan dagoeneko aipatu diren zenbait alderdiri dagokionez, Iruñerriko Mankomunitateak estolderian egitekoak dituen aldaketei buruz esaterako, jakin nahi luke zer aukera dagoen lurrazpiko edukiontziak instalatzeko.</p>
Udala	<p><i>Mankomunitateak dagoeneko ez du aukerarik ematen lurrazpiko edukiontziak jartzeko, aurrez izandako esperientzien emaitzak ez baitira aski onak izan.</i></p> <p><i>Beste aukera bat bilketa pneumatikoa instalatzea da, Alde Zaharrekoa bezalakoa, baina dakarren kostu ekonomikoa ez da oso bideragarri jotzen une honetan.</i></p>
Auzotarra	<p>Blas de Lasernan proposaturiko aparkalekuari dagokionez, erantsita dauden etxeak kaltetzeko arriskua dagoela ohartarazi du, oso zaharrak baitira.</p>



Udala	<p><i>Proposatzen den jarduketa lur gaineko aparkalekua denez, horrek normalean ez lieke eraginen inguruko etxeen zimenduei.</i></p> <p><i>Hala ere, horren berri emanen zaio proiektua idatzi duen taldeari.</i></p>
-------	---

AMAIERA

Galdera eta iradokizunetarako tartearen ondoren, bertaratutakoek esateko besterik ez dutenez, udal-ordezkariek eskerrak eman dizkiete bertan zirenei, agertu izanagatik eta parte hartu eta proposamenak, iruzkinak eta kritikak adeitasunez eta errespetuz egin izanagatik.

ERANSKINA: IRUDIAK





ERANSKINA ALEJANDRO ASTIBIAREN AURKEZPENA

https://erabaki.pamplona.es/uploads/decidim/attachment/file/437/20.03.04_reurbanizacion_milagrosa_manuel_de_falla.pdf

ERANSKINA: CIMA Ingenieros SLU eta SUMA Urban Sustainability Consultants SLPren AURZKEPENA

https://erabaki.pamplona.es/uploads/decidim/attachment/file/438/CIMA_SUMA_ReurbanizaciOn_Milagrosa.pdf